

14/2018 EBAZPENA, abenduaren 28koa , Euskarabidea-Euskararen Nafar Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana euskara ikasteko helduentzako banakako laguntzen deialdia esleitzen duena, 2018ko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarte hasten diren ikastaroetarako, eta lehen ordaintzea xedatzen duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-1544-2018-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua
Hizkuntza Baliabideak
Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Atala
Tel. zk.: 848 426053
Helbidea: Bartolomé de Carranza, 5 - 31008 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskara ikasteko helduentzako banakako laguntzen deialdia, 2018ko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarte hasten diren ikastaroetarako.
Aplikazio arauak:

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuak irailaren 21eko 44E/2018 Foru Aginduan onetsitako deialdia dela eta aurkeztutako txostena ikusirik, zeinean aurkeztutako dokumentuen balioagarritasiuna eta Baloraziorako Batzorde Teknikoak egindako balorazioa jasotzen baita.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004Foru Legearen 22.1.d) eta 99. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren 15. artikuluko d) puntuak ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 129/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT

1. 1. eranskinean agertzen diren onartutako eskatzaileei diru-laguntza esleitzea eta lehen ordaintzaren zenbatekoa ezartzea, osotara 49.544,73 euro, 2018ko Gastuen Aurrekontuko B30001-B3100-4809-334100 ("Euskara ikasteko helduentzako laguntzak") partidaren kargura.

2. 2. eranskinean deialdiko oinarriak ez betetzeagatik agertzen diren baztertutako eskatzaileei eta berariaz laguntzari uko egin diotenei diru-laguntza ukatzea.

3. Askatzea 50.455,27 euro 2018ko Gastuen Aurrekontuko B30001-B3100-4809-334100 ("Euskara ikasteko helduentzako laguntzak") partidatik eta 25.224,73 euro 2019ko diru-erreserbatik.

4. Ebazpen hau eta 1. eta 2. eranskinak igortzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak Hezkuntzakoan duen Kontu-hartzailatza Delegatura, Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalera, Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegora, Euskarabideko Hizkuntza Baliabideen Zerbitzura, Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Atala, Programen Bulegora eta Diru-laguntzen Datu Base Nazionalera, bidezko ondorioak izan ditzan.

5. 3. eranskina argitaratzea Nafarroako Gobernuko webguneko tramiteen atalean.

6. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jartzen ahal dute jurisdikzio-ordena eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hau guztia Nafarroako Gobernuaren aitzinean alde zuzeneko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Iruñean, 2018ko abenduaren 28an.

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA.
Mikel Arregi Pérez